

DBH1 NATur: "Oinak lurrean, unibertsoan bidaiatzen dugu"

Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Ikerketa-arazoak definitzea helburu duten galderak finkatutako irizpideen arabera aztertu eta haien egokitasuna balioetsi. Eta hainbat euskarritan emandako ikerketa-arazoren ebazpenak bideratuko dituzten galderak formulatu.</p>	<p>1.1. Emandako ikerketa-galderen pertinentzia balioetsi du landutako irizpideen baitako arrazoiketa egokien bidez.</p> <p>1.2. Ikerketa-galderak sortu ditu landutako irizpideen baitan arrazoituta.</p>
<p>2. Jasotako ezagutzak baliatuz eta gaiaren alderdi jakinei buruzko galderari erantzuna emanaz, emaitza horma-irudi digitalaren bidez gelakideei azaldu.</p>	<p>2.1. Fenomeno astronomikoen inguruan, informazioa jasotzen du (hiruhilekoan zehar) eta horma-irudia edo aurkezpena sortu, editatu eta gorde du.</p>
<p>3. Hainbat euskarritan emandako informazioa baliatuz, unibertsoaren osagaiak bereizi eta deskribatu.</p>	<p>3.1. Unibertsoko astroak, euskarri ezberdinetan emanda egoki identifikatzen ditu.</p> <p>3.2. Unibertsoko osagaien ezaugarriak egoki, terminologia zuzena erabiliz, deskribatu ditu.</p>
<p>4. Astroen mugimenduek Lur planetan duten eragina esplikatu eta justifikatu, eskainitako zein norberak manipulaturako simulazioak zein bere ezagutzak erabiliz.</p>	<p>4.1. Fenomeno astronomikoak (translazioa eta errotazioa) deskribatzen ditu eta sortzen dituzten ondorioak egoki azaltzen ditu.</p> <p>4.2. Astroen mugimenduen ondorioz sortzen diren eraginak (urtaroak, ilargi faseak, eklipseak eta mareak) azaltzen ditu beti ere terminologia zientifikoa erabiliz (eta ondorioak azaltzeko arrazoi egokiak baliatu ditu.</p>